

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Negozio ereduak ondo funtzionatzeko beharrezkoak izango diren aktibo nagusiak deskribatuko ditugu orain.

Funtsezko baliabideen bitartez baliozko proposamena garatu, bezeroengana iritzi, bezeroekiko harremana mantendu eta diru sarrerak lortu ahal izango ahal ditu gure enpresak.

Baliabide hauek lau kategoriatan sailka daitezke:

## **Baliabide fisikoak:**

Produktua fabrikatzeko bulegoak, instalazioak, ibilgailuak, makinak, sistema informatikoak, salmentarako puntuak eta banaketa sarea dira.

Gure kasuan horien artean bulegoa eta sistema informatikoa izango dira garrantzitsuenak. Aplikazioa egin ahal izateko, erabakiak artzeko etb bulego bat beharko dugulako taldekideok elkartzeko. Eta nola ez sistema informatiko bat, aplikazioa informatika bidez egingo dugulako.

## **Baliabide intelektualak :**

Ukiezinak direnak, markak, jabego ezagutza, patenteak, egile eskubideak, elkarteak eta datu baseak.

Gure kasuan bere kabuz salduko ez den produktu bat ez denez, Coca Cola ez bezala, marka ez da garrantzitsua izango; baina bai adiz jabego ezagutza, guk ditugun ezagutzan hain zuzen ere.

## **Giza baliabideak:**

Enpresa edo erakunde batean lan egiten duten pertsonak osatzen dituzte giza baliabideak. Hori dela eta, esan beharrik ez dago enpresa guztietan direla garrantzitsuak, baina batez ere sormena, ezagutza edota gaitasun komertziala oinarritzat duten enpresetan.

Gure kasuan, Lau taldekideok gara oso garrantzitsuak, azken batean oso garrantzitsuak baitira Peioren sormena, Anderrek dauzkan informatikako eta webguneak(aplikazioak) diseinatzeke ezagutzak eta Ainhoak dauzkan salmentetarako(zerbitzua zabaltzeko) eta Aneren antolaketarako abileziak.

## **Finantza baliabideak:**

Ezinbestekoa kreditua edo eskudirua da, negozia zabaldu ahal izateko.

Gure kasuan, eta aurrerago esan bezala , aurreko puntuan zehazki, ez dugu beharko hasiera bateko krediturik; aplikazioa egitea dohain baita, baina bai izango da garrantzitsua publizitatea jendea jakinarazteko.